

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

erkin	«Euskal literatura gaur baino erkinagoa zen garaietan, eleberriak eskatzen ziren...»
likits	«...behin eta berriz igurtzi zuen aho-sabai partean iragan gaueko alkoholaz estalirik segitzen zuen trapu likits hura.»
lausotu	«...baina horrek ez zuela Txemaren eguneroko tristura lausotuko , ezpada alderantziz...»
berbetan	«Esana zion Jabiri, eta honek ulertu ziur aski, baina Txema zen berbetan jo eta dale ibiltzeko beharra zuena.»
ezpada	«...baina horrek ez zuela Txemaren eguneroko tristura lausotuko, ezpada alderantziz...»
jo eta dale	«Esana zion Jabiri, eta honek ulertu ziur aski, baina Txema zen berbetan jo eta dale ibiltzeko beharra zuena.»
barren	«Ez dizkizu begiak gainetik kentzen, barren! »
kanpai jotzea	«...ohera sartu aurretik Eider gau batez ordezkatzeko zorian egon zitekeen ilehori horren omenezko kanpai jotzearekin .»
mikatz	«Ohartu zenerako gelako giroa arnastu ezina egin zitzaion, eta mikatzagoa mingaina, aho-sabaiaren inguruan bueltaka.»
trumilka	«...gizakiak bertan trumilka bizitzeagatik Txema aise irentsiko zuen New York, Bombay edo Mexikora.»
gomuta	«... gomuta izpi bat ekartzen zioten oheak, hitzak, eskaparateak...»
aise	«...gizakiak bertan trumilka bizitzeagatik Txema aise irentsiko zuen New York, Bombay edo Mexikora.»
ñabardura	«...horma horien atzean gordetzen den ñabarduren mundua deuseztatzea...»
artean	«...nahiz eta Txema, artean , gertatzen ari zenaz konturatu ere ez zen egiten.»
legez	«Baina gauetik egunera legez aldatu zitzaion izaera.»
liskar	«Gutxienez Maitek hasitako liskarrean burua hotz mantentzeko balio izan zion.»
atabiko	«Kontsolatu zen pentsatuaz beharbada instintu atabikoren bat izango ote zen...»
gibel	«Atea bere gibelean ixten ari zela ikusi zuen azkenengoz Maite, oraindik adi...»
harilkatu	«...argazkiek kontatzen zioten ordenatu gabeko historia pixkanaka harilkatuz .»
txoropito	«...dudarik gabe jakingo zuen gazte txoropito baten eskutik irtendako hitzak zirela promesaz eta eternitateaz betetako izkribu haiek.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

galapaka	«Bihotza galapaka hasi zitzaion, tripetatik ahorraino hedatutako bero batekin batera.»
lar	«...beraz ez zen lar arriskugarria testu horiek irakurtzeko.»
laga	«...memoria bizkarrean daramazun karga bat baino ez da, eta bidean laga behar duzu ezinbestean.»
txingor	«Azkenean, uztak hondatu zizkiguten elurte, uholde, haize eta txingorrei esker, amak eskutik hartu gintuen...»
dingilizka	«...eternitatea zer zen ikasi genuen jarlekuetan jesarririk eta hankak dingilizka genituela.»
bistadizo	«Amak ezkerreko leihotik begiratzen zuen, herriari azken bistadizoa eman guran-edo; baina guri bost axola herriak: behingoz trenean ginen...»
behingoz	«Amak ezkerreko leihotik begiratzen zuen, herriari azken bistadizoa eman guran-edo; baina guri bost axola herriak: behingoz trenean ginen...»
xira	«...praka laburrak eta panazkoak, xira eta eguzkitako krema, alkandora eta forru polarra.»
txin-txinka	«...garagardo botila brindis baterako gonbita zela ulertu zuen Txemak eta, berak ere berea altxatuz, txin-txinka hasi zen inguruko beste lagun guztiekin.»
anabasa	«...kirolak eta abarrak ere hitzezko anabasa hartan galduko ziren modu berean.»
begitandu	«...nire aurreko maila bakoitza etorkizun eta errealitate altuago batera eramango ninduen bidea begitandu zaidala...»
tripak gurru eta gurru eduki	«Azkenean mokadua labur geratu zait eta, arrasti osoan zehar tripak gurru eta gurru eduki ondoren...»
pittinka-pittinka	« Pittinka-pittinka gure harreman hura hasierako komenientziatik urruntzen hasi zen...»
bits	«...gero zuhaitzak eta ur-lasterretako bitsa ; eta hodeiren bat oparituko ote zidan beldurrez negoen...»
zin degizut	«Eta zin degizut , Bitakora fidela, mugarik gabeko handitasun horretan txiki sentitzeko prest nagoela...»
erronka	«...H ordua iristean behar bezala ekiteko nesken erronkari .»
herabe	«...bere bihotzeko taupaden errudunari, agur iheskorak, herabeak .»
atxur	«Bai. Aupa ba. Aupa. Eta, zer, atxurra ? Ez. Jode. Eta zuk?»)»
hitz eta pitz	«Gidaria hitz eta pitz ari zitzaidan, eta akademiako garaietatik geratzen zaidan ingeles apurrarekin erantzuten nion...»
zein baino zein	«Berriz galdetu behar izan diot, beraz. Zein baino zein .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

arestian	«Eta arestian kontatutako anekdota horretan, eta beste guztietan ere, bere irribarrea erdi zabalik geratzen den ate baten antzekoa da.»
barrabaseko	«Rocioren aurpegian ilusio beteko begitarrek keinu barrabaseko ahoarekin konpartitzen dute bere hizjarria...»
dizdizari	«Txemarekin ibiltzen hasi eta urte bat edo bira izango zen, bai, eta hark ere begi dizdizariak zituen.»
astazakil	«Ninfomaniatik beherako ezer ez zaie kabitzen astazakil horiei...»
eskarmentu	«...galdetu didanean berak beste eskarmentu izan nahi nukeela konturatu naiz, hori bai.»
altzo	«Turismo-bulegoko eskaileretan jarrita zegoen, ordenagailua altzoan eta begiak ilargi betea baino biribilago.»
hurrupatuta	«...eta askoz ere urrunago, abuztuko beroak eta ortuen egarriak hurrupatuta , urtegiko lau tantak.»
txutxu-mutxu	«...haurren jolasak, txutxu-mutxuak , inbidiak, ganaduaren ibilerak, jaiak...»
supituan	«Baina dena dela, supituan isildu nintzen egongela hartara sartu eta...»
iaio	«Franco katxaloteak harrapatzen bezain iaioa zen urtegiak inauguratzen...»
denero	«...edo sikatearen erruz herria agerian geratzen denero , etxe honetara etortzen naiz...»
doako	«Autostopak, ordea, hori dauka: doakoa dela eta turistek lortzen ez duten hurbiltasuna eskaintzen duela.»
isiltasun mutu	«Eta Txemak isiltasunik mutueneko elkarrizketa nahi zuen.»
langar	«...leihatilaren bestaldetik ihesi baitzihoazkion Eiderrek urtebete lehenago ikusitako paisaiak, eta langarraren tantak zelai (...) esmeraldetan...»
amorfo	«Arratsaldeetako ordu amorfoei itxura konkretuei ematen zieten bien artean.»
limurtu	«...pisua erosi eta Tereren ama limurtu (batek daki zelako amarruak eta hitz ederrak erabili zituen horretarako)...»
amarru	«...pisua erosi eta Tereren ama limurtu (batek daki zelako amarruak eta hitz ederrak erabili zituen horretarako)...»
biharamun	«Gaur, berriz, sekulako biharamunarekin , aterpetxeak antolatutako minibus batek (...) eraman gaitu...»
zohikatz	«...itsasoa usaindu daiteke eta nonahi daude zohikatz a ateratzeko zuloak.»
txirikordatu	«...nire hatzak bere ikatzezko hariak txirikordatzen hasi diren une berean.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

xeratsu	«Eta gero mingain xeratsua , ahosabaia...»
ziplo	«Zeren, noski, udalekutik etxera bueltatu eta ziplo bota bainion dena...»
orbaindu	«Txemari ez ote zaion zauria orbainduko , edo niri ez ote zaidan itxiko...»
gehiago ez ekin	«...eta nahiago izan dut gehiago ez ekitea .»
itzel	«Pena euriarena, baina bestela itzela izan da.»
erru ziztririk	«Eta hala ere kontrolatu egin behar, batez ere ume haiek erru ziztririk ez zutelako.»
kargu hartu	«Baina, hala ere, ezin zion inori kargu hartu (...) neskalagun izandakoa kanposantuko G12 kalean zegoen hilda...»
likatsu	«Emakumeak gehiago atzeratu zituen belaunak, sustraietatik agertu behar zuen umeak bidea libreago izan zezan buru likatsua ateratzean.»
berri-lapiko	«...arratsaldero entzuten zituen bere amaren eta auzoko andre berri-lapikoen kefetegiko txutxu-mutxuak.»
behinik behin	«...ondo zebilen, askatasuna gurpilpean sentitzeko moduan bai behinik behin .»
gaeliko	«Bidean aurrera eginez, gaelikoa entzun dut nire bizitzan lehenengoz, izenik gogoratzen ez dudan herri batean.»
mauka	«Itzelezko mauka da, beraz, atzerrian edo mozkorrean jendea ezagutzea.»
txango	«Helburu horrekin, txangoak antolatzen dituzte, xake txapelketak, futbola, igeriketa...»
ezagutze aldera	«...sartu dira talde horretan, eta elkar ezagutze aldera pentsatu dute egun batzuk batera pasatzea.»
arramaka	«...eta nire aterpetxeko jendea (nirekin parrandan irten zena) oihuka eta arramaka .»
txintxilikariodun jenero	«...gizonen artean mozkortzeko beldurrik ez duena, eta txintxilikariodun jenero hori osatzen dutenen artean arrakasta sortzeko moduko itxura duena.»
garunbako	«Ziurrenik ilusioa, nerabe garunbako batek bere gelako nesken koadernoak atzeko orrialdeetatik zabaltzen dituen bezalaxe...»
legetxe	«Edo esploradoreak hildako zibilizazio baten aztarnak aurkitzen dituen legetxe .»
eldarnio	«...alkohol tantaz bustitzen (...) neskaren ezpainak, eta bi droga gogor iruditu zitzaizkion horiek Txemari: alkohola eta amodioa. Eldarnioa , hitz batean.»
pitorik ez	«Agian kontsolagarri izango zaizu jakitea ez dudala pitorik gogoratzen, zeruko zein izar ote den horrela baliatu nuena. Izar koitadua.»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

koitadu	«Agian kontsolagarri izango zaizu jakitea ez dudala pitorik gogoratzen, zeruko zein izar ote den horrela baliatu nuena. Izar koitadua .»
kilkir	«...edo bazkaritik soberan geratu diren ortuariez elikatzen dugun kilkir bat.»
eder askoa	«Hondartza luzea, golf zelai zabalak eta txalet eder askoak deskubritu zituen bertan...»
zirrara	«...(eta gutxiago hitz horiek sortuko zioten ohiko zirrara) inorekin konpartitzeko.»
karkara	«Clay, Fergus eta Legg iraindua karkara bizian hasi ziren, barreka eta eztulka...»
sargori	«...zeren beti izango baitzuen tokitxo bat Txemaren buruan, sargori , beti sargori...»
hagitzez	«...bizitza guztirako Eiderren itzal madarikatuaren pean ibiltzea baino hagitzez errazagoa.»
malkar	« Malkar itzelaren ertzean zegoen arren, Txemak arnasa hartu zuen...»
letania	«...errepikatzen zuen ahots ezezagun haren letaniak .»
lagun portatu	«Ez zidaten txarto begiratu, edo iraindu, edo proposamen arrarorik egin. Ez: lagun portatu ziren.»
lizunduta	«Azala lizunduta duen liburu bat erreskatatu du eta eskuarekin kolpe batzuk eman dizkio.»
uzkur	«Mesfidati aritu da, uzkur . Ez du atea zeharkatu...»
berbarako	«...gaur, berbarako , amildegi baten ertzetik paseatzen genbiltzan, eta bat-batean txilio deigarri batzuk entzun ditugu.»
mami	«Akaso izango zuen nahiko mami beste ezertan pentsatu beharrik ez izateko.»
maiseatu	«...bere esku zegoen guztiak Eider iraintzea, kritikatzeta, kalumniatzea, manipulatzeta, maiseatzea .»
lartxo	«...baina Ralphen irudia Jabirengan ikustea lartxo da.»
potxingo	«...horretarako kosta ahala kosta sartu behar zuelako txilibitua Irlandako edozein potxingotan .»
txilibitu	«...horretarako kosta ahala kosta sartu behar zuelako txilibitua Irlandako edozein potxingotan.»
sama	«Lehengo batean eztulka hasi baitzen, eta hegoekin sama babesten. Gau osoa eman zuen eztarriko lakarra kendu nahian, koj-koj-koj moduko zaratatxoekin.»
lakarra	«...eztulka hasi baitzen, eta hegoekin sama babesten. Gau osoa eman zuen eztarriko lakarra kendu nahian, koj-koj-koj moduko zaratatxoekin.»